



ZAURI KIRURGIKOA

(Zainketak eta gomendioak operazioaren ondoren)

1. Hasieran dieta biguna egin, eta gero, pixkanaka-pixkanaka, zure ohiko dieta egiten hasi.
2. Hurrengo egunetan temperatura hartu arratsaldeetan, 38°C edo gehiago baldin baduzu, familiako medikuari galdetu.
3. Ohiko bizimodua egiten hasteko, nola eboluzionatzen duzun ikusi behar da. Familiako medikuari galdetu.
4. Min handia edo iraunkorra baldin baduzu, eta aringarriak hartuta desagertzen ez bada, familiako medikuari galdetu.
5. Interbentziotik bi egunera dutxatu zaitezke, edo zaurien aldea garbitu. Lehenengo apositua kendu. Dutxatu eta zauriak ondo lehortu ondoren, beste aposito bat jarri, edo, nahi baduzu, agerian utzi.
6. Ez kezkatu zauriaren ondoan ubeldura-antzeko bat agertzen bazaizu, pixkanaka-pixkanaka kolorea aldatu eta desagertu egingo da.
7. Ez egin esfortzurik eta ez hartu pisurik interbentzioaren ondorengo 4 asteetan.

